

X. EDIZIOA



“Café Bar Bilbao”

Teatro Laburreko Saria
Premio Teatro Breve

Iñaki Odriozola Sustaeta
AZKEN ORDUA

2012

AZKEN ORDUA



AZKEN ORDUA

PERTSONAIA: ERREGE.

GERTAERA:

Erregek, gazteluan, bera hiltzera datorren semearen zain dagoen artean, dituen hausnarketak, oroitzapenak eta etsipena .

ESZENATOKIA:

Harrizko gaztelu zahar bateko hormak. Atzean, leihatila luze eta estua. Aurrean, harrizko tronoa, zapi handiz estalirik. Alboan lastargia.

JANTZIA:

Erregea zapi handiez naiz larruez jantzirik doa, baina belaunak, izterrak eta sorbalda erdi biluzik ditu.

(Dekoratua eta jantzia aukerakoa da)

1. ESZENA

(Sakonean, Errege, heldua baina ez zaharra, ile beltz luzeaz, tronoan eserita. Argia berari bakarrik. Sakoneko musika arritmikoa. Ur ttantten zarata. giro hezea, lainoa.)

ERREGE. - Haurra besterik ez zen, orain hamabost urte, lehenengo aldiz, nirekin eraman nuenean. Haur txikia. Hizketan ere ia ez zekien, Haren eztarriak ez zituen hots zarra-barratsuak besterik egiten. Ezpatatzat labana jarri nion eskuartean, metal hotzaren zirrara suma zezan. Esku batez bai besteaz gogor eusten irakatsi nion. Ezkertia zen, ezkerti itsua.

(Pertsonaia astun jaikitzen da, bere buruaren burutasunetan. Argia berarentzako baina, orain, goitik datorkio. Sakoneko musikak, berdin, Efektuak aldatuz doaz, errekatxoa, txalaparta ukitu leunak noizbehinka, haizea. Guzti hau pertsonaiaren protagonismoa oztopatu gabe, bare-bare.)

ERREGE.- Ez zuen joko haren arauen berri, Gizakien arteko guduez. Naturaren inozoa zen, pizti bailitzan, eta hila eta biziaren arteko mugarik ezin zuen bereizi. Ez zekien hiltzea zer zen, bizi izatea zer zen oraindik ez baitzekien.

(Isiltzen da eta bi pauso ematen ditu.)

ERREGE.- Zaldian, atzean, jarri nuen, eta ezpata maginatik atera nuenean, nire gudariak prest ikusi nituenean, azken aholkua eman nion . . .

(Isilune motza egiten du.)

ERREGE.- Ezpata zuzendu, eta bizkarrari lotua eraman nuen konbatera.

Zirt-zart egin orduko bukatu zitzaigun, ez baikenuen utzi arnasarik berrar zezaten. Bertan behera utzi genituen. Ez genuen begiak ixteko ere astirik izan.

Halere... Izandako konbateetatik amaiezinena iruditu zitzaidan; nonbait, lehenengo aldiz zerbaitek larritu ninduen.

Izuk behin hartu nau. Lepoa beldurrak estutzen zidan.

Umea bizkarrean zegoeneko ardura zen, eta arriskua, gorputzean ez ezik, buruan sortzen zenaz ohartu nintzen.

(Tronoaren inguruan bira eman eta esertzen da. Sakoneko zarata arritmikoa gero eta epelago desagertze-arte. Argiaren angelua aldatzen da berarekiko.)

ERREGE.- Labana, sendo, nire gainean zegoen gatazkari odolberoari lepoan sartu zion, eskutxo haiek odolez busti zirela. Hiltzen ikasi zuen bizi izatearen balioa ezagutu gabe.

Isurpen lodiak, bortitz, uholde bailitzan, estali zuenean, ikusmenik gabeko begi irekiek harriturik begiratu zutenean... negarrari eman zion.

(Jarrera aldatzen du, desosegua adieraziz. Sakonean zaldiak, ezpatak, oihuak eta borroka zarata.)

ERREGE.- Zalditik jaitsi ginen hasierako une garratza igaro ondoren. Ehunaka zaldunek elkar jo genuen, bi burdin blokek elkar eraso eguzki galdatan. Zaldi

eta gizakumerik ederrenak, ezpatarik zorrotzenak, jantzirik distiratsuenak bai lantzarik zuzenenak gorritz bilakatu ziren, eguzkia bera ere ilundu zela.

Biziok, zela gainean iraun ahal izan genuen guztiok, gutxiok, bada, aseezinik, gorputzez-gorputz, hortzez-hortz, ari izan ginen.

(Jaikitzen da eta ezpata ateratzen du. Sakonean erritmoa gogortuz, dardarakortuz. Argiak, esaldien indarraren arabera aldatzen hasiko dira.)

ERREGÉ.- Irabazle ginen, guttienengoak ere azala bere eta besteen odolena nahaste zuela, garaileok ere elkarri helduaz tente iraun ahal genuela.

Etzanik zeudenen bila joan ginen, neketsu bezain etsiezinik, inor bizirik ote zegoen jakin nahian, gurekin etxera itzultzeko kapaz izango ote zen jakin gogoz..., edo eta eramanezinezko zaurien minak eraginda, arren lepoa moz geniezaion eskatuko zain.

(Isilune motza.)

ERREGÉ.- Hesteak iraultzen zitzaizkidan, hondamena itzulezinezkoa zela bagenekien, geure odola baizen isuria. Gure bihotzek haien zaurien sastada taupadantzekoak sumatzen zituzten, haien oinazea pairatzen denok.

, ordea, erail genezan eskatzen ari zitzaigun... mesedez.

(Ahitua ematen du baina bat-batean argitzen da. Musika eta argi jokia berarekin.)

ERREGE.- Etsaiekin, ostera, gureekiko alderantziz gertatzen zitzaigun, zenbat eta gizaki ederragoa, orduan eta amorru gehiagoz erasotzen genuen... ohore handiagoz ezpatak zartatzen baitu!

(Ezpata lurrean sartzen du indar handiz.)

ERREGE.- Nire bularrari, olagarro bailitzan, atxiki zitzaion, bere labanak nire Golkora nahi zuela. Hilik zegoela uste izan nuen, nekeak, nonbait, sena ahuldu baitzidan, eta ez nintzen gorpu zikin hartaz konturatu eztarrian laban zorrotzaren hotz mintsua sumatu arte.

(Isilune motza.)

ERREGE.- Bi eskuez haren eskumuturra eta besoa heltzea lortu nuen, nahiz eta ezin nuela luze iraun jakin...

labaintxoak, osorik, etsipenezko amorrazio eroaz eraso ninduen gatazkari hiltzarenari sartu zion.

2. ESZENA

(Erregeari Larritasuna nabari zaio. Ura edaten du. Ura edaten du lasaitzeko, bi eskuez, eta gero aurpegia bustitzen du.)

ERREGE.- Iturburu honetako ur hotzak ere izoztu egin ziren egun hartan, gaur, iluntzean, berriz ere izoztuko diren lez.

Eskumutur berberak, ahur berbera laban-burua euskarrituko du, hatz berberak girtena igurtziko, eta haren begiek, itsuturiko betseinek, narkotizaturiko lokiek, nire bihotza zartatuko dute, sagar heldua, ozen, hozkatzen den antzera. Krausk!

(Pauso batzuk ematen ditu. Lasaitu egiten da oroipenetan. Sakonean ahotsak, zaldiak, umeak, tresneria eta beste zaratarik bada. Argi aldaketak zuhertasunez berari jarraiki.)

ERREGE.- Zainen jarioa galanki haztatuta nuen dagoeneko. Aitak zaldi berria eskaini zidan egun hartan. Gazte indartsua nintzen, gudu jokoetan adituena, buruzagiaren semea, handik aurrera buruzagi ohia izango zenaren seme buruzagia.

Zaldi beltza zen boterearen ezaugarri baliotsuena, eta aberearen bizkar garbiak begiraka zuenaren aurpegia, ilunean, islatzen zuen.

Harro nindoan egun hartan, konbate gogorra izango zen, geure lurraldea defendatzen saiatu behar baikenuen nahitaez.

Nire gizaki trebeekin goiko zelaira abiatu nintzen, zaldiaren lepo luzea baino zorrotzago nengoela. Mendi-bizkarrera iristen ari ginela gure azpian azaldu ziren, harro, osasuntsu, eroso . . . Itzela. Lerroka zihoazen eta ez zuten eraso hain goiz espero, ez zuten erasorik espero, oldartzaile baitziren, eta ez ziren erne, ez adi.

(Isilunea. Sakonean zaldika antzeko erritmoa, burundara isila.)

(Pertsonaia tente dago eszenatoki erdian.)

ERREGE.- Azkar gindoazen baina zaldi beltza ezproiez jo bezain laster hegan zirudien. Gudariak irrintzi ozena bota zuten, eta lur eta hautsezko hodei hiltzaile bilakatu ginen. Gure aurkakoak ez ziren makalak, ez txepelak, gizaki gihartsu eta ausartak baizik, baina horrek ez ninduen arduratzen, neure buruaz bat nentorren eta.

Hil ala bizi izatearen arteko desberdintasuna bereizgaitza zitzaidan, ziur bainengoen, bitan moztuko banindute ere, senide eta lagunak, herriak betirako gogoratuko nindukeela. Haien erraietan hondoratuko nintzela nekien, horren loturik baikeunden; are gehiago beraiengandik nireak eman ondoren. Gure arbasoen luzapen bezain ondorengoen sustrai ginen, ez baikeneukan zentzurik gure askaziaren barne ezik, eta bakoitzaren orainaldia ere porrota zen, zentzugabea, izaera hartatik kanpo.

Baina, aldi berean, nire balioa, hatzaparretan neukan ezpataren zorrotasunean zetzan, nire besoen azkartasunean, nire bizi senaren aditasunean. Neure izatearekiko ardura neuregan zetzan soilik, osoki, eta horrek arriskura

bultzatzen ninduen, izatea bera, bizia, merezi zuen joko garbi eta kementsu nuela.

(Pertsonaiak ura edaten du. Pentsakor eta hausnarti dago).

ERREGE.- Hogeituro urte geroagoko egunsenti hura berdintsua zen. Egun berezia izan zitekeela, nolabait, atzeman nuen, eguzkia izpi hotzak jaurtikitzen ari zitzaidala konturatu nintzenean. Hasieran, gorputzean argia labainduko bailitzaidan zen. Gero, putzuko uretatik begietara mingarri zetorkidan. Lokietan min nuen. -Gaur- bururatu zitzaidan -izugarrizko eguna dator- eta berrezintasunean haztatu nuen sentipen bakan hura, inoiz suma ezin ahal izango nuenaz kontziente.

Zaldi gainera igo nintzenean, zoroaldia beretzeko bridak gogor eutsi nituen. Berehala urdaila lasaitu zitzaidan, giharrak eta eztarria askatu, zelaren igurzpenak zakila ernarazi zidala. Zut! Hasteko ordua zen.

(Erregearen jarrera aldatzen da, oroitzapenetan indartsu da.)

ERREGE.- Adimena zeharo argitu zitzaidan. Abereak, nire oin-artean aurrerantz jo zuenean, ez nuen, ez, kamustasunik bekoki distiratsuan. Betseinak borobilagoak, belarriak irekiagoak, ahoan listu gardena eztaurrirantz, ukimenak larruaren zimurdurak garbi atzematen...Ingurune osoa neure menpe zegoen, baita herrian gelditzen zirenen begi bustiak ere.

Egun ikaragarria zen. Eta, lehenengo aldiz, ohiturei jarraiki, mutiko buruzagi-gaia, nire leinuaren luzadura, oraindik ume ahul, gudari-kume ezgaia,

amonaren magala zitzaien habiatik atera, hatzartxo leunen artean laban zorrotza jarri eta gerrikoa sorbaldan behera luzatuaz eginiko zulo txoko babeslean, aldean, hartu nuen...zorritzarrean.

(Labana ateratzen du maginatik. Pertsonaia urduri dago. Desosegua, estutasuna.)

ERREGE.- Ezgauza ziren bi eskutxo inozoek lepoa zulatu zioten, egun madarikatu hartan. Bizkarrari lotua neramanez, bereganako ardurak sena bete zidan heinean, ez nengoen erne gatazkariaren zerraldoa bat-batean piztu zenean.

(Isilune motza)

ERREGE.- Nireak egin izan balu ere, odoluste garbia zatekeen. Gudu joko gordina, ordea, odolez ez baina lotsaz zikindu zen. Nik bizirik iraungo nuen baina bestearentzako sastada horrek egin zidan min barnekoiak ere gaurdaino iraun du.

3. ESZENA

(Lasaitu egiten da Errege. Horma atzean, bi lastargi, leihatila oso argi gutxiz sakonean erritmo lasaia, isila. Argia berarentzako bakarrik.)

ERREGE.- Nire aita zahartuz zihoala banekien arren, bere borondate leialak harritzen ninduen. Gehiago etor ez zedin esan nahi nion, baina ezin.

Hezur junturen gogortzea kemenez gainditzen zuen, giharren indargetzea adoretz, eta azkartasunaren galtzea bizi senez. Halere, gero eta motelago ziren zihoan eta laster borrokalarietzat arriskugarri izango zen, gudari zintzoak, ari zirena bertan behera utzi eta buruzagi zaharra zaintzeagatik bizia emango zutenetarikoa ziren eta.

Ez nuen premiagabeko arriskurik nahi, premiazkoak ere nahikoa eta gehiegi baitziren.

Egun hartakoa zahararentzat azken konbatea izango zeneko asmoa nuen, bere zaldi gainean ikusi nuenean. Berak, apika, bazuen susmo hori, bai eta egurtzera etorri zitzaizkigun herrikoek ere.

Egunsentia zen, eta ohorezko heriotza eskaintzen ari nintzaiolako burutapena izan nuen une batez. Berehala ahaztu nuen, ordea, zentzugabekeriatzat jo ostean . . .Baina halaxe zen.

(Erritmo aldaketa nabaria bai pertsonaiaren esateko eran, bai argiaren jarraipenean, bai sakoneko doinuan).

ERREGE. - Inoiz baino sendoago borrokatu zuen hasieratik. Inoiz ez bezalako garra zuen haren ezpatak, inoiz ez bezalako arnasa haren bularrak ... Aitak hiltzera zeraman bere burua!

Konturatu ahal izan nintzen momentuan bereganantz, korrika, jo nuen, Babesa eskaini nahi izan nionerako, ordea, hurbildu nintzaionerako, itzulezinezko burdin zartatzaileak, bularraren ezkerretara, haragia ireki zion.

(Pertsonaia urduri bezain haserre dago. Sakoneko erritmoa, oster, lasaia.)

ERREGE.- Hamaika sastakada eman nion hantxe bertan etsaiari, baina alferrik! Aita hiltzear zegoen.

Hiltzear eta, halere, begiak ireki zituen irribarre mintsua eginaz. Bazekien istant batzuk barru oroitzapenen munduan soilik bizi izango zela, eta halaxe geratu zen bere herritarren gogamenean.

(Pertsonaiaren jarrera biziagotzen da. Sakonean borroka zarata doa gehituz.)

ERREGE.- Gure borroka erabat bikoiztu zen, eta guztiok, gazte nahiz helduagoak, haren omenez gudatu genuen, gizaki nahiz zaldi, lur gainean higitzen zen oro, geldiaraziz. Bizirik iraun ahal izan zuten batzuk azkar asko eman zioten ihesari, zauriak ezkutatu edo itxi nahian.

(Hilketa doinu apala. argiak argi-itzal izateraino iluntzen dira. Kanpai-kada geldoa. Isiltasuna.)

ERREGE.- Zerraldo guztiak bildu genituen nola hala eta, nekeak gaindi, malda osoko arma jabegabeak gainean pilatuz, heriotza eta burdinazko mendiaren gainean buruzagi zaharraren izate odolgabetua jarri genuen.

Han ginen, hiru belaunaldiak. Aita gatazkan garbi eta adoretu hila. semea, bere lehen gudu egunaz geroztik ohorezko ume borrokari ausarta, eta ni.

(Pertsonaia bere burutazioetan galdu da eta bat-bateko haserrea datorkio, argia eta sakoneko doinu zarata ere haserretzen doazela.)

ERREGE.- Ni! Buruzagia! Ni! Zaindaria!

(Isilunea)

ERREGE.- Zaindari zaindua!

Bi jainkoren artean borrokatu eziniko gidari hilkorra!

Ni, urteetan zehar, egunero nire balioa frogatu beharreko zorian...egunero eta etsi gabe.

Ohore gabeen alferrikako izaera horretatik atera nahian, betiereko jarduera etenezinean!

Ni, animalietatik gizajoena eta zorigaiztokoena...

(Pertsonaiak hasperen handia egiten du)

ERREGE.- Heriorengandik gero eta hurbilagoko desio eta ikara jasanezinaz.

(Hitzak bukatzerakoan, batera, sakoneko doinu guztiak bukatzen dira. Pertsonaia, istant motz batean geldirik dago. Argia, gutxi, berarentzako. Ahal izango balitz, azpitik)

ERREGÉ.- Nire bularrari lot hakio eta ez hadi inolaz ere aska!

Bizkarreko zakutxoan sartu nuen. Neure gerriaz bat egin zezan agindu nion.

Arriskua gordin ikusi arren nire burua zoriontsu sumatzen nuen, aitik eraman ninduen eran, neuk ere, horrelaxe baineraman nire gorputzeko haziaren emaitza, nire jarraipen zuzen eta suharra.

Ezagutzen nuen gertakizun hark biontzako zuen garrantzia eta ez nuen, ez, une haiek inolaz ere trukatzeko asmorik. Behin soilik gertatu ahal izango baitzen, behin soilik sentitu ahal izango bainuen, behin soilik, belaunaldi denetan ematen zen ekintza hau...behin eta berriz gertaera berbera baitzen.

Nire bularrari lot hakio eta ez hadi inolaz ere aska!

(Isilune txikia. Sakoneko doinua, lasai, berriro ere hasten da. Taupadak.)

ERREGÉ.- Lotu zitzaidan, ondu lotu ere!

Gaur, hatzapartxo haiek gerrian, bularrean ez ezik sorbaldan gora suma ditzaket. Gorgoileraino igotzen zaizkit, gero eta estuago eta, orain arte iraun badut ere, itolarria, jada, pairaezina zait.

(Isilunea)

ERREGE.- Nekatuta nago. Gorputz sendo hau, zuhaitz zahar ihargaitzen antzera, zeru haserrearen tximistak lurretik aterako duela dakit, lurrera botako, hondar eta hautsak estal dezaten. Berez deusez ezingo dena eraso bortitzaren ondorio desagertuko.

Neuk sortu nuen tximista indartsuak, bitan azkenik, banatuko nau, eta bilakaerak bere biderantz joko, ubide okerra itxiaz.

(Pertsonaia bere burutasunean lasai dago. Musika eta argia berdin.)

ERREGE.- Bizitza eman ninduzun egun madarikatu hartatik gaurkoaren zain izan naiz. Borrokalari hura hil zenuenetik nire bizitzak zentzua galdu zuen, eta zureak bikoiztu, naturaren desorekak orain arte iraun duela.

Nire bizitza hustu egin zenuen, hil eta bizi izatearen desberdintasunaz kontziente egin ninduzun eran. Neure bizitzaren esanahia agortu zenuen; are gehiago, gure historian bertan ere, lotsa, nahasketa eta zatiketa eraikiz.

(Isiltasuna)

ERREGE.- Gaur goizez, herioren aurka bidali zaitut, handik garaile etorri ahal baduzu hil nazazun, bion arteko bakea eta maitasuna birsortuaz.

(Isiltasuna)

ERREGE.- Orain, bazatozela dakidanez, hemen nauzu.

Burdin izpi boteretsua, haragia ukitu orduko, barneratzen denean, nireak akabo,
gureak iraun.

Inongo lurralde beltzetara!

4. ESZENA

(Pertsonaia behean dago. Sakonean kanpamenduaren zarata orokorrak eszena girotzen du. Argia berarentzako pizten da.)

ERREGÉ.- Zaldi beltza erregalatu nion ohizko zen bezala. Borroka izugarria espero genuen eta, jada, ordua zen buruzagi berriak gudarien agintea har zezan. Bi egun lehenago, aztarnaria heldu zenean, jakin ahal izan genuen gure indarrentzat gehiegi zirela.

Aurpegi iluneko izaki mardulak ziren, ehunka. Lurrerainoko gonak zerabiltzaten. Oihalez estalirik buruak. Ezpata oker eta zabalak zekartzaten, eta zaldiez gain, animalia ezezagun erraldoiak, garai bezain lodiak, beldurgarriak.

Aztarnari gaixoa burutik eginda iruditu zitzaigun berri hura su inguruan agertu zuenean: lurrerainoko sudurtzarra zuten, bai eta bi hortz handi ere, norbera baino luzeagoak...

Sinesgaitza zen, inoizko kontu zaharretan entzun gabekoa...

(Isilune motza, erritmo lasaia.)

ERREGÉ.- Lehenengoan izualdiak hileak laztu zizkidan baina, berehala, burura etorri ere: -Hauxe da nire aukera!-

(Pertsonaiak keinu adierazgarria egiten du. Erritmo aldaketa orokorra. Kanpamenduko zaratak oraindik dirau sakonean.)

ERREGE.- Hiltzera bidali nuen eta berak bazekien.

Halere, han ikusi nuen nire azken aginduen zain, zaldi beltzaren gainean, lirain, zuzen. Oroitzapenetako neu nintzen, aitak neu bidalitako lehen gudian.

Gaurkoa, ostera, hasi aurretik galduta zegoen eta, jakinaren gainean hiltegitara bidaltzen ari nintzaion.

(Isilune motza)

ERREGE.- Gure gizaki leialak ere han ziren, txitik esan gabe, baina begirada larriz euren senideak agurtuaz... Urdailak korapilatuak, bihotzak gori, eztarria ustel.

(Isilune motza)

ERREGE.- Guztiek gorrotatzen ninduten.

Hala eta guztiz ere, buruzagiaren eskutik hiltzera zihoazela bazekitela, irribarre ohoretsua egin zidaten, azken agurrez, nire burutasuna ulertuko bailuten, nire nahia onetsi.

(Sakonean zaldi zarata urruna sumatzen da. Benetako zarata da oraingoan, ez oroipenezkoa. Pertsonaia honetaz konturatzen da. Leihatilatik begiratzen du. Ahuldadea, oinetan dardara, ondoeza)

ERREGE.- Urrutian entzuten ditut.

Zarata erdia soilik datorkit, gurdi erdiak, zaldi erdiak, zaldun erdiak... Odol erdia isuri ondoren arma erdiak datozkit itzuleran.

(Leioa begiratu beharra du pertsonaiak.)

ERREGÉ.- Eta gidari berria aurrean dakarte, gorri estalirik, bihotza irakiten, burua asegaitz.

Denen gain datorkit, lokietan sumatzen dut, haren zaldiaren pausokada hotsak burua mailukatzen dit eta.

(Gero eta gogorrago ari da pertsonaia.)

ERREGÉ.- Kaiku bete isurkin behar izango dute lasaitzeko, giza odol garbitzailea biziari eskainiriko sakrifizioan. Sarraskiaren erantzukizuna duenaren zuku barnekoia. Neurea!

(Isiltasuna. Argia berarekin aldatuz doa. Txalapartak, noizbehinkako taुकadatan erritmoa gogortzen du.)

ERREGÉ.- Heriotza kontzientziaren konbatea galduta datorkit, zelaian irabazi duten heinean. Garaile da galdu badu ere, eta ni, orain sobera nago bere munduan, soberan, bere hil eta bizi izatearekiko ezjakintasunean.

(Pertsonaiak bere buruarekiko bira egiten du.)

ERREGE.- Sobera nago neure buruarekiko, eta, azkenik, egin dudanagatik lortuko dut, berriz ere, ubideranzko bidean jar nadin, ur ttantta bakana ibaian galdu eta, era berean, bere buruaz bat egiten den lez.

(Isiltasuna. Sakoneko zarata guztiak ere geldotuz doaz.)

ERREGE.- Gainean nuen gatazkariaren labanak nire leporanzko zuen indarra galdu zuen unean bertan, garbi haztatu nuen bizi izateari jarraitzeko garratzasuna, garbi ikusi ahal izan nuen, bera eta bion askapena nire heriotzean, bion iraupena nire desagertzean, bion bizia nire deuseztean, berak ni hiltzean, etzaten zela.

ERREGE.- Eta Heriorengana bidaltzen nauanean gure askaziaren bilakaera etengabeak duen orban beltza zurituko da, gure herriaren historiak duen zuloa beteko...eta uholde nazkagarri hau betirako baretuko.

(Pertsonaiak etsi egin du. Tronoan esertzen da, astun, sakonean noizbehinkako kanpaikada. Argia, gero eta ilunago, gero eta berarentzako, baina itzali gabe.)

AZKENA

(Bat-batean, berari dagokion argia pizten da. Aldi berean sakonean musika desorekatua sortzen delarik.)

ERREGE.- Baina nik ez dut hil nahi!

Ez dut irtenbiderik, historiak komunzta dezan hil egin behar dut, baina ez dut nahi.

Non zaudete arbasoak, hor goitik begira!

Zatozte hona! Ez ezazue ihes egin! Zuen lekua hemen dago, Hemen!

(Ezpata atera eta etsipenean, haizea ebaki nahi izango bailuen, darabil.)

(Halere, argia eta musika ahulduz doa)

ERREGE.- Ez dut nahi inork eraman nazan!

Hainbat urtetan garaipen guztiak eskaini dizkizuet, nire harrapakinen zati ederrenak: urre, zilar eta harri bitxiak; atxilotutako neskaso samurrak, erailez, opa.

Eta nola eskertzen didazue?

Ez egin ihes orain!

Zuen zerua ez da nik emaniko lurra bezain handi!

Zuen boterea neuk hazi dut, lurralde guztietara hedatu!

Non zaudete behar zaituztedanean? Non zaudete koldar horiek?

Ez dut aitzakiarik onartzen! Behar zaituztedan lehenengo aldia da, eta ezkutatu egin zarete.

ERREGÉ.- Zatozte hona! Neuk agintzen dizuet!

Nigatik zarete zareten beste, eta, orain, edozein lekaio mendekari bezala, bakarrik utzi nauzue, denok bakarrik utzi nauzue. Mertzenario halakoak!

Nire odoletik edaten jarraituko duzue, nire sakelatik jan izan ohi duzuen antzera.

Bestea nire gain jarriko duzue, eta hari ere, izainak, sapa zurgatuko diozue, muina zurrupatu arte.

Non zaudete nazkagarri horiek? Non da zuen ekaitzaren botere gartsua? Non da nire botere ahalguztiduna?

Ez al duzue, azareak sartu didan gezi hau ateratzeko beste modurik, heriotza ezik?

Non zaudete betiereko jainko maltzurak?

Ahozabal gaiztoak!

(pertsonaia ahiturik dago.)

ERREGÉ.- Ur geldietakoa baino lizunagoko hezetasun honek ondoeza dakarkit.

(Isiltasuna)

ERREGÉ.- Aitalehenak behar ez direnean soilik existitzen dira. Beti boteretsuen alde izango, garaileei uzten dizkieten botere apurrez bizi baitira. Nire alde izan dira garaile izan naizen artean; orain, oster, behar ditudanean, eskuartean hauts bihurtu zaizkit.

Jainkoak boterearekin batera desegin zaizkit!

(Pertsonaia azken zoroaldira heldu da, etsipen osoa.)

ERREGE.- Ez dut herioren erregetzak harrapa nazan nahi! Herio! Zu zara nire jainkoa. Zuk bakarrik duzu ni erasotzeko ahalmena.

Eta gaur, nire semearen alde egin duzu, zerri halakoa. Eman eta eskaini dizudan guztia ahaztuaz.

ERREGE.- Jainko Maltzurra!. Hitz gabeko tximinoa zara, azpisuge halakoa! Haratustel jale zikinaaaa!!

(argiak itzaltzen dira)
